

KONTU-KONTARI**GAU-LOREAK
II. KAPITULUA**

Udan gau-loreak aurkitu genituen tokietako bati erreparatuko diogu jarraian, Mutrikuko *Villa Dioni* jauregitxoari alegia. Baina ez pentsatu Berriatutik Ondarroarako errepidean aurkitu genituen gau-loreak ahaztuko ditugunik. Haiei buruz ere mintzatuko gara, baina aurreraxeago. Udazkeneko iluntze batean joan ginen berriro Mutrikura, beste hainbestetan bezala, paseatu eta kafetxo bat hartzera. Egia esan, hego-haize finak eta, ia-ia oharkabean, ezari-ezarian, egunari tokia nahiz denbora kentzen ari zen iluntzeak, udazkeneko irudi polita utziko ziguten. Txurruka plazatik abiatu eta Atxixin kaletik zehar Samikollarako ibilbiderantz egin genuen, zero izarratupuan, paisaia zoragarriaz gozatzeko asmoarekin. Beheko aldean portua; gorantz begiratu gero, Arno mendia; eta aurrez aurre, zabal-zabalik, Kantauri itsasoa, Jaizkibel mendia ikus zitekeela urrutien, han-hemenka pizten zihoazen itsasargiekin batera. Erdibidean dago *Villa Dioni* jauregitxoa. Eta, udan bezala, han aurkitu genituen gau-loreak, sarrerako atearen aldamenean. Zabal-zabalik zeuden, gaua zetorrenaren seinale. Gau-loreek 50 edota 100 zentimetro-rainoko altuera har dezakete. Sustrai sakonak dituzte, eta horrek laguntzen die izotzaldi zein lehorte gogorrenei aurre egiten. *Villa Dionin* arrosa eta hori kolorekoak dituzte.

Botanikaren ikuspuntutik ere bitxiak dira oso, hermafroditak izateaz gain, gustuko dutelako elkarren artean gurutzatzea. Halatan, eta konparazio baterako, lore gorridun eta lore zuridun gau-loreak gurutzatzen direnean, hibridoek lora arrosak eman ohi dituzte. Halaber, hibrido horiek ernaltzean, kolore anitzeko loreak sortuko dira, sekuentzia edo hurrenkera berean sortu ere: gorriak, arrosak eta zuriak. Are gehiago, sekuentzia horrek bat egiten du Mendelen segregazio genotipoarekin. Bada, Gregor Johann Mendel monje agustindar txekiarrek, XIX. mendearen erdialdean, gau-loreen ezaugarrietan oinarritu zuen bere genetika-ikerketa. Orduetik, Mendelen legeez hitz egiten dugu, bizidunen ezaugarriak belaunaldi batetik bestera nola transmititzen diren azaltzeko. Herentziari buruzko lehen ikerketa zientifikoak burutu eta genetika klasikoaren oinarriak jarri zituen lehenengo zientzialaria izan zen Mendel.

Behin zimelduta, lorearen kalizaren baitan hazi beltz obalatu eraten da. Hazi horrek lurrarekin bat egin orduko, bizitzaren zikloak bere bideari ekiten dio berritua, abentura amai-gabea. Ezin ukatu ostera ere arreta deitu zigutela *Villa Dioniko* gau-loreek. Irekita, zabalik daudenean tronpeta itxura dute. Baina noiztik egongo ote ziren paraje hartan gure gau-lore *tronpetariak*? Akaso, hitz egingo baligute jakingo genuke, baina oraingoan isilik aurkitu genituen, kezkatuta antza. Adia zeuden, etorkizun hurbilean gerta daitekeenaren zain. Eta ez da gutxiagorako, laster *Villa Dioni* jauregitxo botatzera doaz. Eraikin zaharkitua bota eta jabeek txalet garaikidea egingo dute. Zer gertatuko zaie orduan gau-loreei? Gaur, oker-oker eginda dago eraikina. Nahiko narriatuta. Alabaina, badu oraindik bere xarma, enkantua. XX. mendearen hasierako euskal jauregi tipikoen estilora egindakoa da. Samikollarako ibilbidera ematen duen burdinazko atetxo igaro eta harririkidun bidezidortxo labur-labur bat dago, bizpahiru metrotakoa. Bazterrean, nonahi daude askotariko loreak. Jarraian, eraikinera sartzeko egurrezko eskailera batzuk dau-

de. Eskailerak amaitzen diren tokian, atari dotorea dago, portura eta Kantauri itsasora begira dagoen talaia pribilegiatua.

Beheko solairua luze doa, ezkerretik eskuineko alderantz eta, jarraian, gorantz egiten du bi pisuko dorreak, txori-toki eta guzti. Gaur egun duen egoera gorabehera, eraikin alaia da *Villa Dioni*. Ez bakarrik duen kokalekuarengatik. Baita ere beraren kolore zuri-gorriengatik eta inguruan dituen lore eta zuhaitzengatik. Egin-eginean ere, eraikinaren atzeko aldean laranjondo, mandarinondo eta limoiondo ederrak daude, eta horien usain gozoa nabari da.

Gainera, famatuak dira bertako laranja eta mandarinak, bertoko birbilobak marmelada egiten duelako eurekin. Izan ere, Mutrikun bertan, *Ondare* izeneko enpresa txiki bat du beste bazkide batekin batera. Marmeladak eta barazki kontserbak artisauek eran egin eta salgai jartzen dituzte.

Aspalditik dute ospea euskal kostaldeko zitrikoek. XIX. mendearen amaierarako oso estimatuak ziren merkatu askotan, baita Madrilen ere. Itxura denez, euskal kostaldean mikroklima berezia sortzen omen da, eta horrek egiten ditu berezi bertoko zitrikoak. Besteak beste, bereziak ei dira azal zuri lodiagoa dutelako. Hain justu, horrek berebiziko garrantzia du gozogintzarako, azalak baliatzen direlako.

Artamendi Benito anai-arreba gazteak dira *Villa Dioniren* jabeak, baina atzean egon badago istorio polit besteko bitxia, eta, zergatik ez esan, misterioitsua.

Eraikina Mutrikun *Pope* ezizen edo goitizenaz ezagutzen den familiakoek egin zuten, XX. mendearen hasieran. Diotenez, ingeles batzuek enkargatuta eraiki zuten. Hala ere, ezin jakin hori guztiz egia ote den. Kontuak kontu, ziurra da ingelesik ez zena sekula agertu jauregitxoan.

Lehenengo jabea Madrileko alargun bat izan zen, udatiarra seguru asko. Baina pare bat urte besterik ez zuen egin jabe

bezala. Hurrean ere, 1920ko abuztuan, Artamendi Benitotarraren amonak, Dionisia Berasaluzek, erosi zion hari jauregi-txoa. Bada, bere izenaren omenez, *Villa Dioni* deitu zion, eta halaxe jarraitu du gaurdaino.

Nortasun handikoa izan zen Dionisia Berasaluze. Ez zen ez atzean geratzen zen horietakoa. Gazte joan zen Madrilerako hotel batean lan egitera, zerbitzari gisa. Hain zuzen, Madrilen ezagutu zuen Jose Benito santandertarra. Horrela, Santandertarren ezkondu eta bertara joan ziren bizitzera.

Senarrak bidaia asko egiten zituen mundu osoan zehar, gehienbat, Kubara. Horren ondorioz, Dionisia sarritan joaten zen Mutrikura. Eta, zer esanik ez, udak bertan igarotzen zituen beti.

Bizitzako bitxikeriak tarteko, egun batean, loteria tokatu zitzaion Dionisiari. Edo hala esaten zuen berak behinik behin. Loteriako diruekin *Villa Dioni* izango zena erosi eta bere izenean jarri zuen.

Gerra Zibilak iraun bitartean ere *Villa Dioni*n egon zen bere gurasoekin eta alaba Maria Antonia eta Ritarekin.

Oraindik leiho-oholetako batean bala-zuloa dago. Artamendi Benitotarrei etxean esaten zieten behin batean soldadu *gorri* batzuk sartu zirela baimenik ere eskatu gabe, gerra-kontuak aitzaki. Eurekin bizi izan ziren denboraldi batean. Atseginak ziren eta errespetuz ere tratatzen zituzten. Egun batean, ordea, tiroka jardun zuten leihoetatik. Ordutik dago, bada, bala-zuloa leiho-oholetako batean. Etxetik joan zirenean ere, dena aurkitu zuten bezala utzi zuten, eta, esker onez, edozenbat janari eta gauza oparitu zieten.

Gerra igaro ostean, gauzak bere onera etorri zirenean, Dionisia Berasaluzek eta bere ondorengoek jarraitu zuten *Villa Dioni*z disfrutatzen. Beraren bilobak, hots, Artamendi Benitotarrak, Eibarren bizi ziren, baina oporraldiak *Villa Dioni*n igarotzen zituzten. Umetasun eta gaztaro zoriontsuak izan zituz-

ten bertan, Mutriku moduko kostaldeko herri txiki, polit eta alai batek eman ohi duen askatasunean, libre.

Guk ere, betiko legez, asko disfrutatu genuen Mutrikura egindako osterarekin. *Villa Dioni* eta gau-loreak atzean utzi, eta Samikollararako ibilbidea egin genuen.

Samikolla Mutrikuko auzo txiki bat da, itsasora begira-begira dagoena, Saturrarango hondartzaraino hedatzen diren zazpi kalen hasieran. Samikolla herri-izena da, eta itsas gizonen zaindari den San Nikolasetik dator. Arean ere, bertan dago santu horren omenezko santutxua. Izatez, asko dira Mutrikuk eman dituen itsas gizon ospetsuak, hala nola, Pedro Ilunbekoa, Domingo Irure, Hernando Leizaola, Antonio Gaztañeta, Miguel Bidazabal eta Kosme Damian Txurruka.

Santutxua ikusi, kresal usaina sakon hartu eta, itzulerako bidean, Atxukaletik zehar Beheko Plazara egin genuen, bertan kafesnetxoak hartzeko.

Beheko Plazan bat egin genuen Amaia Artamendi Benitorenkin, Dionisia Berasaluzeren bilobetako batekin. Berarekin hizketan hasi eta azaldu genion gau-loreena, nola udan arreta deitu ziguten eta udazken betean ere gauza bera jazo zitzaigun.

Hark esandakoarengatik, orain badakigu gau-loreak lasai asko egon daitezkeela, *Villa Dioni* bota aurretik beste nonbaiten landatu eta haziak ere hartuko dituztelako, *Villa Dioni Berrria* izango denean bizitza berriari ekin diezaioten.

Mutrikutik irten eta kotxean etxerako bidean gindoazela irratia biztu eta tronpetari baten jazz-doinu alaiak aurkitu genituen. Tronpeta-doinuak entzuten jarraitu genuen, gau-loreen omenez, seguru geundelako asko dutela esateko, eta etorkizunean esango dizkigutela makina bat kontu.

(JARRAITUKO DU)

Francisco Javier Arrieta Idiakez